

Ligia Destephen

Emakumearen Ikasketa Zentroa – CEMH, Honduras
Psikologoa. Sexu eta Ugalketa Eskubideen Saila




Honduraseko CEMH erakundeak 32 urte ditu. Horretan, Sexu eta Ugalketa Eskubideak hiru ildo hauen bitartez lantzen ditugu: eragin politikoa, sentsibilizazio kanpainak eta 12tik 22ra bitarteko emakumeei zuzendutako prestakuntza, arrisku handiko auzoetan.

Emakumearen Ikasketa Zentroan Eskola Feministekin lan egiten dugu. Hala, emakume gazteekin indarkeriaren prebentzioa lantzen hasten gara, haien eskubideak erakusten dizkiegu. Horretarako haien emozioetatik abiatzen gara; izan ere, askotan ez dute ikusten eskubideei buruz hitz egiteak haiekin zerikusia duenik. Horrela, gai hori haien auzo eta komunitateekin lotzen hasten dira. Gero kontrazepzioaz, abortuaz eta erabakitzeke eskubideaz hitz egiten dugu. Prestakuntza horren helburua, bada, emakumeek euren testuinguruetan antolatzeke beharra antzeman dezaten da.

Eragin politikoa, aldiz, diputatu batekin edo osasun-ministroarekin batzar bat bilatzea da, adibidez. Haien atzetik ibiltzea, ea zer egin dezakegun. Ikustea nortzuk dauden gure alde, zer esan ahal diguten aurka dauden horiengana heltzeko.

1990ko hamarkadan, Montevideoko adostasunarekin eta El Cairoko Batzarrarekin, aurrerapauso bat egon zen Latinoamerikaren gaian. Hala ere, Sexu eta Ugalketa Eskubideei buruz hitz egitea zaila da Hondurasen.



Lehenik eta behin, osasun sistema oso oinarritzkoa dugu. Sexu- eta ugalketa-osasuna are eskasagoa da. Ez dago Sexu Heziketa Integralik, ez dugu metodo antikonzeptibo guztiak lortzeko aukerarik.

Gainera, 2009ko estatu-kolpeaz geroztik atzerapauso bat egon da herrialdean. Emakumeen aurkako indarkeriak gora egin zuen eta, adibidez, larrialdiko kontrazepzioa debekatu egin zuten. Pilula debekatu ondoren, nerabeen haurdunaldi kopuruak gora egin zuen. Larrialdiko kontrazepziorako pilula debekatuta dagoen arren, ezkutuan saltzen da, garestiago eta osasun-erregistrorik gabe. Informazio askorik ez dagoenez, neska askok abortatzeko erosten dute hura.

Hondurasen, abortua betidanik egon da kriminalizatua. Ez da legala ezta emakumearen bizitza arriskuan dagoenean ere. 2017az geroztik, borrokatzen hasi ginen hura 3 kasutan gutxienez despenalizatzeko, baina 128 diputatuetatik bederatzik soilik bozkatu zuten alde.


Sexu-heziketako gidak daude, baina ezin dugu esan integralak direnik, asko falta baitzaie. Gainera, daudenak ez dira ikastetxe guztietan erabiltzen ari. Sexu Heziketa Integral baten aldeko lege-proposamen bat aurkeztu zen, birritan, baina esan dezakegu tiradera batean gordeta dagoela.

Gure testuingurua diktadura batena da, benetan, ildo politiko batekin. Sentitzen dugu ez dagoela inolako interesik emakumeen eskubideen gainean, are gutxiago Sexu eta Ugalketa Eskubideez ari bagara. Bortxaketak gero eta neska txikiagoen aurka egiten dira: lehenik, 10tik 14 urtera bitarteko neskak ditugu, bigarrenik, 15tik 19 bitartekoak eta, hirugarrenik, 20tik aurrerakoak. Ez dira kasu guztietan salatzen baina, urtean, batzuetan, hiru mila salaketa jartzen dira sexu-indarkeriagatik. Badakigu hauek gutxienez direla, barrualdeko emakumeek ez dutelako salatzen. Hala, kasu horien % 95 zigorrik gabe geratzen dira. Hortaz, nork egingo dio aurre saltzeak dakarren guztiari estatuak ez badu erantzuten?

Herrialdean arazo asko daude, eta gai hau ez da hain garrantzitsutzat jotzen, geroko uzten da. Ez dute ikusten neskak haurdun geratzeak pobrezia larriagotzen duela, sexu indarkeria dakarrela... hor ditugu migrazio-ibilbidean bortxatuak diren emakume guztiak ere. Gure auzoak marek (bandek) kontrolatzen dituzte, eta emakumeak euren kodeen arabera babesten dituzte. Badaude antikonzeptiboak erregulartasunez hartzen dituzten emakumeak, bortxatzen badituzte ere. Arazo kate bat da, emakume gazteengan ondorio larriak dituena.

Beraz, emakumeek seguruak ez diren abortatzeko metodoak bilatzen dituzte eta ondorioak izan ditzakete, edota hil. Buruko osasunean ere ondorioak izaten dituzte. Zer gertatuko zaio bortxatutako emakume bati, haurra haztera derrigortuta dagoenean? Emakumeek depresioa eta antsietatea izaten dituzte, pairatzen dituzten beste egoera guztiei gehituta.

Gainera, kriminalizazio soziala dago. Emakumea ospitalera badoa, abortua izan duelako, salatu nahi izango dute eta argazkiak aterako dizkiote. Hedabideetan agertuko da “abortatu zuen emakume” bezala. Kautelazko neurriak jarriko dizkiote. Agian ez dute atxilotuko, baina kriminalizazio soziala pairatuko du, bere komunitatean jakinaren gainean egongo direlako eta horrek ondorioak dituelako.





Izan daiteke abortu bilatua edo naturala, baina beti dago kriminalizazioa.

Honduras, teorian, estatu laikoa da baina, duela hainbat urtetik hona, Eliza eta talde fundamentalistak asko sartzen ari dira. Horretan enpresekin eta botere-taldeekin zerikusia duten interesak daude. Talde fundamentalistek ildo bat dute eta gero eta gehiago sartzen ari dira, ez Hondurasen bakarrik; Latinoamerika osoan esaldi eta kanpaina berak erabiltzen ari dira.


Hala eta guztiz ere, iritzi publikoa gero eta hobea da. Kalean, behintzat, jendeak gero eta gehiago ezagutzen ditu Sexu eta Ugalketa Eskubideak. Sexualitatea tabu den aldetik, jende askok informazioa nahi du. Gai garrantzitsua da, sexu eta ugalketa eskubideak ez ditugun eskubide askoren oinarri baitira.

Halaber, egin dituzten iritzi-inkestetan ikusten da larrialdiko kontrazepziorako pilulak edo 3 kasutarako abortua babes handia dutela. Gazte gehiago ari dira borrokatzen, gazte gehiagok hitz egiten dute lehen tabu ziren gai horiei buruz. Esate baterako, lehen, maila publikoan ia ez zen abortuari buruz hitz egiten. Orain, emakume askok horri buruz hitz egin eta horren alde borrokatu nahi dute. Nire ustez, hori lorpen bat da. Zenbait mito eta tabu haustea lortu dugu eta honaino heldu gara. Izan ere, mozio bat aurkeztu izana eta eztabaida hedabideetara ere heltzea aurrerapen handia da.

Nik, adibidez, txikitatik, eskola katoliko batean ikasi nuen. Abortuari buruz modu izugarrian hitz egiten zidaten. Baina nik sentitzen nuen ez zela guztiz horrela. Apur bat gehiago irakurri eta ikertu nuen. Egia esan, nire burua feministatzat hartzea ez zen erraza izan; baina konturatu nintzen emakumeen eskubideen alde borrokatu nahi izatea pauso bat zela. Nire ustez, azkenean, norberaren eta familiaren inguruan ikusten diren bidegabekeriek eragiten dute aldatzeko nahia. Batez ere sexu-indarkeriari dagokionak. Ni asko hunkitzen nau gai horrek. Ikusten nituen neskak, albisteak... Gauza horiek guztiek eraman ninduten Sexu eta Ugalketa Eskubideen alde borrokatzera.

Defendatzaile bihurtu aurretik, nire bizitza arinagoa zen, erosoagoa. Oinarrizko premiak asebateak dituzunean errazagoa da ez jakitea, oso eroso da beste ezerengatik ez borrokatzea. Nire bizitzaren alderdi batzuk gobernatzeko modua asko aldatu nuen. Orain ez dit lotsarik ematen abortua despenalizatzearen aldekoa naizela esatea. Lehen ez nuen aipatzen, nire familia oso matxista delako, oso kontserbadorea. Orain, nolabait, nekeza da; izan ere, Giza Eskubideen defendatzaile izatea egun osoko jarduera da. Beti dago albisteren bat, beti egitekoren bat, beti premiaz eman beharreko erantzun bat. Adi egon behar zara beti, egunero, asteburuak ere. Norberak egiten duen guztia lanera moldatu beharra dago.

Zentzu horretan, CEMHn autozaintzaren gaia lantzen dugu. Lantzen dugu, baina besteentzat, beste emakumeentzat. Zenbait adiskiderekin esperientziak partekatzen hasi gara; bulegotik irten eta beste inora joan, gertatzen ari zaigun horri buruz hitz egitera. Adibidez, lan egiteko eta “ezer ez egiteko” momentuak uztartzen dituen jardunaldi bat egiten dugu; baina, azkenean, beti hitz egiten dugu gai berberei buruz. Agian defendatzaile guztiek ez dituzte oporrak hartuko. Heltzen da momentu bat non ez da posible, naiz eta beharrezkoa den egun batzuk hartzea gertatzen ari den guzti horretatik



deskonektatzeko. Zaila izaten da, arduragabe sentitzen zarelako. Badakit adiskide askok ez dutela egiten, baina nik bai erabaki dut oporrak hartu behar ditudala eta hori autozaintzako neurri bat da. Ere bai, deskonektatzeko moduak bilatzea, Giza Eskubideen eremutik kanpoko pertsonekin ibiltzea.

Amets egiten, aukeratzeko askatasunean pentsatzen dut, salbu sentitzeko askatasunean. Seguru sentitzea, kalera irteteko beldurrik ez izatea, salatze beldurrik ez izatea, sinetsiko dizutela jakitea. Sexu Heziketa Integral bat egotea nahi dugu, emakumeek informazio osoarekin erabaki ahal izatea eta sexualitatea gozatzea, hura beti egon baita gizonaren menpe. Emakume gazteek hitz egiteko eta haien eremuetara beldurrik gabe irteteko aukera izan dezaten.